## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Elgoibarko Udalak, 2012ko otsailaren 23an egindako Ohiko Udalbatzan, Bide Publikoan, Establezimenduen kanpoaldean, Terrazak eta mahai-tokiak jartzeko baldintzak arautzen dituen Ordenantza behin betiko onartzea erabaki zuen.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantza osorik argitaratuko da.

Elgoibar, 2012ko otsailaren 28a.—Alfredo Etxeberria Murua, Alkatea.

(532) (2227)

*Kaleko terrazen eta mahaien instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza.*

I. KAPITULUA. XEDEA, IZAERA, ESPARRUA ETA SALBUESPENAK

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Izaera juridikoa.

3. artikulua. Esparrua.

4. artikulua. Salbuespenak.

II. KAPITULUA. INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

5. artikulua. Instalazioaren baldintza eta muga orokorrak.

6. artikulua. Egitura finkoen edo mugikorren bidezko estalkiak.

7. artikulua. Luzera.

8. artikulua. Mugatzea.

9. artikulua. Herri interesagatiko edota bide-segurtasunagatiko debekuak.

10. Artikulua. Terrazen okupazioari buruzko berariazko arauak.

10.1. Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietako terrazak.

10.2. artikulua. Oinezkoentzako kaleak instalazioekin okupatzea

10.3. artikulua. Plaza eta gune libreak instalazioekin okupatzea.

10.4. artikulua. Gune libre bereziak instalazioekin okupatzea.

10.5. artikulua. Arkupeetako gunea instalazioekin okupatzea.

III. KAPITULUA BAIMENA ESKURATZEKO BALDINTZA FORMALAK: ESKAERA ETA TRAMITAZIOA

11. artikulua. Udalaren baimena. Eskaera. Eskabidea.

12. artikulua. Ebazpena.

13. artikulua. Baimenaren baldintzak.

14. artikulua. Indarraldia eta berritzea.

15. artikulua. Funtzionamenduari buruzko ordutegia.

16. artikulua. Okupa daitekeen azalera mugatzea.

17. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

18. artikulua. Instalazio horietan burutzen diren jarduerak.

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Elgoibar, en sesión Plenaria Ordinaria celebrada el día 23 de febrero de 2012 acordó aprobar definitivamente la Ordenanza Reguladora de la instalación de Terrazas y Veladores en la Vía Pública.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Elgoibar, a 28 de febrero de 2012.—El Alcalde, Alfredo Etxeberria Murua.

(532) (2227)

*Ordenanza Municipal Reguladora de la Instalación de Terrazas y Veladores en la Vía Pública.*

CAPITULO I. OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO Y EXCLUSIONES

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Naturaleza jurídica.

Artículo 3. Ámbito.

Artículo 4. Exclusiones.

CAPITULO II. CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN

Artículo 5. Condiciones y limitaciones generales de la instalación.

Artículo 6. Cubriciones mediante estructuras estables fijas o móviles.

Artículo 7. Desarrollo longitudinal.

Artículo 8. Delimitación.

Artículo 9. Prohibición por razones de interés público y/o Seguridad Vial.

Artículo 10. Normas específicas de ocupación de terrazas.

10.1. Terrazas en aceras de calles con circulación rodada.

10.2. Ocupación de las instalaciones en calles peatonales.

10.3. Ocupación de las instalaciones en plazas y espacios libres.

10.4. Ocupación de las instalaciones en Espacios libres singulares.

10.5. Ocupación de las instalaciones en Zona Soportales.

CAPITULO III. CONDICIONES FORMALES DE AUTORIZACIÓN: SOLICITUD Y TRAMITACIÓN

Artículo 11. Licencia municipal. Solicitud.

Artículo 12. Resolución.

Artículo 13. Condiciones de la licencia.

Artículo 14. Vigencia y renovación.

Artículo 15. Horario de funcionamiento.

Artículo 16. Delimitación de la superficie ocupable.

Artículo 17. Obligaciones del titular de la instalación.

Artículo 18. Actividades llevadas a cabo en estas instalaciones.

IV. KAPITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA ETA LEGALTASUNA BERRESKURATZEKO ARAUBIDEA TRAMITATZEA

19. artikulua. Udalaren baimenik gabeko instalazioak

20. artikulua. Exekuzio subsidiarioa.

21. artikulua. Arau-hausteak.

22. artikulua. Zigorrak.

23. artikulua. Tasa eta fidantza.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

XEDAPEN IRAGANKORRA

AZKEN XEDAPENAK

I. KAPITULUA

XEDEA, IZAERA, ESPARRUA ETA SALBUESPENAK

*1. artikulua. Xedea.*

1. Ordenantza honen xedea da kalean edo erabilera publikoko inguru pribatuetan instalatzen diren terrazen eta instalazio osagarrien araubide juridikoa eta teknikoa ezartzea, betiere, ondoren aipatuko diren lege-araudien arabera: Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua; Euskadiko Irisgarritasunari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea; hiri inguruko, gune publikoetako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua; irisgarritasunaren, eta gune publikoak erabiltzerako orduan, ezintasuna duten pertsonen diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak arautzen dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretua; eta azkenik, otsailaren 19ko 173/2010 Errege Dekretua, irisgarritasunaren eta ezintasuna duten pertsonak ez diskriminatzearen esparruan, Eraikuntzako Kode Teknikoa aldatzen duena.

2. Arestiko paragrafoan adierazitakoaren harira, ondorengoak joko dira terrazatzat: Gune publikoetan eta sarbide nahiz erabilera libreko inguru pribatuetan dauden mahai, aulki eta gainerako altzariak, baita instalazio lagungarriak ere, finkoak edo mugikorrak, hala nola, eguzkitakoak, egiturak, toldoak, lotutako estalkiak, alboetako babesgarriak, argiak, berogailuak e.a., legeztatutako ostalaritzako establezimenduentzat, edo dagokion Ordenantzaren arabera, antzekoak diren establezimenduentzat, aldi baterako edo etengabe erabiltzen diren osagarritzat har daitezkeenak.

3. Gehienez ere 70 zentimetroko diametroa duen elementu bakar bat eta bi aulki jartzen badira, hori ez da terrazatzat hartuko. Elementu hori eta aulkiak jardueraren fatxadari atxikita jarri beharko dira, eta horretarako, teknikariaren txosten justifikatua izan beharko da, eta ondorioz, Udalaren baimena ere bai.

*2. artikulua. Izaera juridikoa.*

1. Bide publikoaren okupazioek eta aprobetxamenduek guztion erabilera bereziari dagokion kategoria juridikoa dute, eta jabetza eskubidea salbu utzita eta hirugarrengoei kalterik egin gabe ematen dira. Era berean, erabilera horretaz baliatu ahal izateko, aldez aurretik Udalaren baimena izan beharko da, eta baimen hori, ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da.

CAPITULO IV TRAMITACIÓN RÉGIMEN SANCIONADOR Y DE RESTAURACIÓN DE LA LEGALIDAD

Artículo 19. Instalaciones sin licencia municipal.

Artículo 20. Ejecución subsidiaria.

Artículo 21. Infracciones.

Artículo 22. Sanciones.

Artículo 23. Tasa y fianza.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

DISPOSICIONES FINALES

CAPITULO I

OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO Y EXCLUSIONES

*Artículo 1. Objeto.*

1. Es objeto de esta Ordenanza establecer el régimen jurídico y técnico de la instalación en vía pública o en espacios privados de uso público de terrazas e instalaciones complementarias al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Real Decreto 2187/1978, de 23 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística, Ley 20/1997, de 4 de diciembre, del País Vasco sobre promoción de la accesibilidad y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, etc. el RD 505/2007, de 20 de abril, por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones, y el RD 173/2010, de 19 de febrero, por el que se modifica el Código Técnico de la Edificación en materia de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad.

2. A los efectos de lo señalado en apartado anterior, se entiende por terraza el conjunto de las mesas, sillas u otro mobiliario, y de sus instalaciones auxiliares, fijas ó móviles, tales como sombrillas, pescantes, toldos, cubiertas ancladas, protecciones laterales, alumbrado, dotaciones de calor, etc., que ubicadas en espacios públicos o privados de acceso libre y uso público, sirven de complemento temporal o continuo a un establecimiento legalizado de hostelería o asimilado según la correspondiente Ordenanza municipal.

3. No se consideraran terrazas la ubicación de un único elemento de diámetro máximo 70 cm con dos sillas que se deberán colocar adosadas a la fachada de la actividad, a medida que se disponga informe técnico justificado; y en consecuencia de la oportuna licencia municipal.

*Artículo 2. Naturaleza jurídica.*

1. Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero y requieren para su ejercicio licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

2. Horretaz gain, uste izango da baimenak prekarioan ematen direla, eta herri interesa tarteko, baimenak ezeztatu egin ahal izango direla. Gainera, ez da kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

3. Norbanakoek ez dute baimena izateko inolako eskubiderik izango. Hortaz, baimenak eskatu ahala emango dira, eta era berean, emandako ebazpena behar bezala justifikatu beharko da.

4. Baimenak, duten izaera juridikoa kontuan izanik, aldi baterako eten ahal izango dira, baldin eta Udalak sustatu edo baimendu dituen jai, kultura, gizarte eta kultur arloko ekitaldiak egiten badira. Era berean, baimenak eten egingo dira obra publikoak edo zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek edo norbanakoek obra pribatuak egin behar badituzte, obra horiek egiteko eman den aldirako; baldin eta obra horiek egiteko, inguru publiko hori erabili behar bada. Azken suposamendu hauei dagozkien aparteko kasuetan, nahiz eta 2. atalean jasotako edukia kontuan izan, Udalak udal-tasa murrizteko erabakia hartuko du, baimena etenda egon den egunei dagokien proportzioaren arabera.

*3. artikulua. Esparrua.*

1. Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko eremu guztietan (bide publikoa, libre dauden tokiak, berdeguneak) ezarriko da, horien titularitatea publikoa ala pribatua den kontuan izan gabe. Erabilera publikoa den ala ez erabaki ahal izateko, egitatezko egoera eta indarrean dagoen planeamenduak zehaztutakoa izango dira kontuan.

*4. artikulua. Salbuespenak.*

1. Hala ere, araudi hau ez zaie ezarriko noizean behineko ospakizunen eta herriko jaien ondorioz jarritako instalazioei. Instalazio horiek Udal Agintaritza eskudunak agindutako ordutegiari eta baldintzei lotuko zaizkie.

## II. KAPITULUA

## INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

*5. artikulua. Instalazioaren baldintza eta muga orokorrak.*

1. Arau orokor gisa, 1.2 artikuluan zehaztutako elementuak instalatzeko baimena besterik ez da emango, eta horiek ordenantza honetan deskribatutako ezaugarriak izan beharko dituzte.

2. Berariaz baimendutakoaz gain, ezin izango da izango da inolako instalaziorik jarri, eta arreta berezia jarriko zaie instalazioen neurriei.

3. Debekatuta dago ondoren zehaztuko diren establezimenduekin lotura duten terrazak instalatzea: Ikuskizun eta joko aretoak, ostalaritzako jarduera osagarria izan arren. Oro har, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikuluaren 4. taldean eta 3. artikuluan ageri diren jarduerarekin zerikusia duten terrazak ere debekatuta egongo dira.

4. Debekatuta dago terrazetan ondoko osagaiak instalatzea:

a) Ur horniduraren, saneamenduaren, argindarraren edo gasaren hartuneak.

b) Era guztietako produktuak saltzen dituzten makinak eta edariak edota janariak prestatzeko instalazio lagungarriak.

2. Se entienden, además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización.

3. El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte.

4. Las autorizaciones, de acuerdo con su naturaleza jurídica, podrán suspenderse temporalmente en el supuesto de celebración de actividades festivas, culturales, cívicas y deportivas promovidas o autorizadas por el Ayuntamiento. Igualmente se suspenderán con ocasión de la ejecución de obras públicas, o de las obras privadas realizadas tanto por empresas suministradoras de servicios como por particulares que requieran necesariamente de la utilización del mismo espacio público, por el tiempo de su ejecución que se halle autorizado. En casos excepcionales de éstos últimos supuestos, y aún teniendo en cuenta el contenido del apartado 2, el Ayuntamiento acordará una reducción de la tasa municipal proporcional a los días de paralización.

*Artículo 3. Ámbito.*

1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público, sean de titularidad pública o privada. La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

*Artículo 4. Exclusiones.*

1. Esta normativa no será aplicable a las instalaciones establecidas con motivo de celebraciones ocasionales y de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la Autoridad Municipal competente.

## CAPITULO II

## CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN

*Artículo 5. Condiciones y limitaciones generales de la instalación.*

1. Como norma general sólo se admitirá la instalación de los elementos referidos en el art. 1.2 y con las características descritas en la presente ordenanza.

2. No podrán realizarse instalaciones distintas de las expresamente autorizadas, prestando especial atención a sus dimensiones.

3. Queda prohibida la instalación de terrazas vinculadas a los siguientes establecimientos: Salas de espectáculos y locales de juegos, aunque dispongan de uso complementario de hostelería, y en general las actividades del art. 2 grupo 4 y art. 3 del Decreto 296/1997 de 16 de diciembre, del Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

4. Queda prohibida la instalación en las terrazas de los siguientes elementos:

a) Acometidas de suministro de agua, saneamiento, electricidad o gas.

b) Máquinas expendedoras de cualquier clase de producto y las instalaciones auxiliares de preparación de bebidas y/o comidas.

c) Irudiak edota soinuak erreproduzitzen dituzten instalazioak, esaterako: Musika ekipoak, bozgorailuak, telebistak edo beste mota batzuetako gailuak (informatikako ekipamenduak, karaokeak, e.a.)

5. Instalatutako terrazetan eta mahaietan, halaber, debekatuta dago ostalaritzarekin zerikusia ez duten bestelako jarduerak egitea. Ostalaritzako jarduerak, bestalde, honako hauek izango dira: Edariak, janariak, ogitartekoak eta pintxoak besterik ez zerbitzatzea; balgin eta horretarako beharrezkoa den baimena badute. Hona hemen, besteak beste, debekatutako jarduerak:

a) Oro har, aisialdi eta merkataritza arloko jarduera guztiak debekatuta egongo dira. Hala ere, baimen bereziak eskatu ahal izango dira, gutxienez, hamar eguneko aurrerapenarekin.

b) Jarduera musikalak egin ahal izateko, aldez aurretik, baimena eskatu beharko da. Horretaz gain, jarduera egin ahal izateko berariazko baimena eman beharko da, eta bertan, ordutegiari, soinu emisioen gehieneko mailari eta egokitzat jotzen diren gainerako gorabeherei buruzko baldintzak zehaztuko dira.

6. Terrazetan, uneoro, oinezkoentzat gutxienez bi (2) metroko tartea utzi beharko da libre eta oztoporik gabe. Gutxieneko pasabide hori espaloientzat, ataripeentzat eta zabalera jakin bat duten gune irekientzat ezarriko da. Horiek horrela, oinezkoentzako pasabideen, lokal publikoetako larrialdietako irteeren, autoentzako pasabideen, garraio publikoaren geltokien eta abarren aurrean ezin izango da terrazarik jarri, oinezkoentzako ibilbide irisgarriak, Eusko Jaurlaritzako apirilaren 11ko 2000/68 Dekretuan ezarritakoak, mantentze aldera, baldin eta Udalaren Zerbitzu Teknikoek, era arrazoituan, irisgarritasun arauak hobeto bermatzen dituen beste kokapen bat dagoela erabakitzen ez badute, edota beste kokapenen baten aldeko irizpena ematen ez badute. Udal teknikariaren iritzi arrazoitua kontuan izanik, oinezkoentzako pasabidea zabaltzeko aukera izango da, baldin eta oinezkoen joan-etorriaren ondorioz hori egitea beharrezkoa bada.

7. Terrazak, gehienez ere, jarduera dagoen lekutik 20 metrora instalatu ahal izango dira, segurtasun arrazoiak direla medio, terraza jartzea desegokia den kasuetan izan ezik.

8. Oro har, ezin izango da jarri terrazak jartzeko azaleraren zati bat edo azalera guztia goratuko duten oholtzarik, tronadurarik edo plataformarik; baldin eta udalak berariazko baimena ematen ez badu. Hala eta guztiz ere, irisgarritasuna bermatu beharko da beti.

9. Terrazan jarrita dauden osagai mugikorrek (mahaiak, aulkiak, e.a.) ez diete oztoporik egingo terrazan ez dauden eta hiriko altzari publikoak (eserlekuak, zakarrontziak, barandak, e.a.) erabili nahi dituzten oinezkoei. Behar bezala arrazoituz gero, eta interesdunaren kontura, baimena eman ahal izango da eserlekuak, zakarrontziak, e.a lekuz aldatzeko, baldin eta horrekin terrazaren erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna bideratzen eta optimizatzen bada.

10. Terrazan alboetako babesak jartzen badira, ezin izango zaie oinezkoei kalterik egin. Era berean, herri titularitatekoa edo titularitate publikokoak diren bideetan ezin izango da kalterik edo aldaketarik egin.

11. Oinezkoentzako gune, plaza, toki libre eta kale partikular bakoitzean dauden terraza guztiek altzari berdinak jarriko dituzte. Altzariak jartzeko, bestalde, guztien arteko azterketa egin beharko da, eta harmonia estetikoari buruzko baldintza bereziak izan beharko dira kontuan.

Horretarako, eragindako ostalaritza-establezimenduek, banaka edo taldeka, terraza kokatzen deneko inguruari dagokion proposamena edo proposamenak aurkeztu beharko dizkiote Udalari. Udalak, ostalaritzako establezimenduekiko adostasunez, guztion intereserako egokiena zer den erabakiko du.

c) Instalaciones de aparatos reproductores de imagen y/o sonido, tales como equipos de música, altavoces, televisores o de cualquier otra índole (equipos informáticos, karaokes, etc.).

5. En las terrazas y veladores instalados queda igualmente prohibida la realización de otras actividades diferentes a las propias de la actividad de hostelería, entendiendo por ésta el exclusivo servicio de bebidas y comidas, bocadillos y pintxos, siempre que estén autorizados por la correspondiente licencia de actividad, tales como:

a) Todo tipo de eventos de carácter lúdico y comercial, quedan prohibidas con carácter general, requiriéndose autorización especial, que será solicitada con una antelación mínima de 10 días.

b) La realización de actividades musicales requiere de previa solicitud y de la correspondiente autorización expresa al respecto, en la que se fijarán las condiciones relativas al horario, máximo nivel de emisión sonora y cuantos otros se juzguen oportunos.

6. Las terrazas deberá garantizar, permanentemente y en todo caso, un paso peatonal mínimo y libre de cualquier obstáculo de dos (2) metro. Dicho paso mínimo se establece para aceras, soportales y espacios abiertos de limitada anchura, no pudiéndose instalar terrazas frente a pasos de peatones, salidas de emergencia de locales de pública concurrencia, a vados, paradas de transporte público, etc., a los efectos de preservar los itinerarios peatonales accesibles establecidos en el Decreto 68/2000 de 11 de abril del Gobierno Vasco, salvo que por los Servicios Técnicos Municipales se determine y/o informe favorablemente y de forma motivada de otra opción de colocación que mejor garantice las normas de accesibilidad. Este paso peatonal puede ser ampliado a juicio razonado del técnico municipal cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

7. Las terrazas podrán instalarse a una distancia máxima de 20 mts de la actividad, salvo que por motivos de seguridad sea desaconsejable su implantación.

8. Con carácter general, no podrá colocarse ningún tipo de estrados, tarimas, plataformas que eleven en parte o en su totalidad la superficie destinada a las terrazas, salvo autorización expresa municipal, y siempre y cuando se garantice la accesibilidad.

9. Los elementos móviles que componen la terraza (mesas, sillas, etc.) en ningún caso obstaculizarán la utilización del mobiliario público urbano (bancos, papeleras, barandillas, etc.) por parte de viandantes que no vayan a hacer uso de la misma. Justificadamente, se podrá autorizar para que a cuenta del interesado, se proceda al desplazamiento de bancos, papeleras etc., al objeto de posibilitar y optimizar la utilidad y funcionalidad de la correspondiente terraza.

10. En caso de protegerse la terraza con protecciones laterales, éstas nunca podrán suponer riesgo alguno para los peatones, ni daño o alteración en la vía de titularidad pública o privada.

11. En cada una de las Áreas Peatonales, Plazas, Espacios Libres singulares y calles particulares habrá de instalarse un mobiliario uniforme para todas las terrazas, estudiando la instalación conjuntamente y con condiciones específicas de armonía estética.

A tal efecto, los establecimientos hosteleros afectados deberán presentar, de forma individual o conjunta, la propuesta o propuestas concernientes a su zona de ubicación ante el Ayuntamiento, que será quien de mutuo acuerdo con los citados decidirá lo más adecuado a los intereses generales.

Nolanahi ere, eta akordiorik ez badago, Udalak hiri altzari horientzat egokienak diren baldintza teknikoak eta estetikoak erabakitzeko eskumena izango du.

12. Udalak mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, e.a. jartzeko guneen mugak zehaztuko ditu. Horretarako, Udalak, baimena eman ondoren, zoruan markak egingo ditu terrazaren azalera guztia mugatzeko.

13. Erabat ezinezkoa izango da bide publikoan aulkiak, mahaiak edo eguzkitakoak edo terrazarentzat lagungarriak diren gainerako elementuak pilatzea; baldin eta terraza instalatzeko baimen eskaeran elementu horiek kentzea ezinezkoa dela agerian uzten ez bada, eta hori behar bezala arrazoitzen ez bada.

14. Erabat debekatuta dago instalazioaren edozein alde guztiz ixtea. Alboetako babesak ordenantza honetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

15. Erabil daitezkeen estalkien hegalak eta estalkiak finkatzeko oinak terrazak hartzen duen azaleraren barruan gelditMuko dira, eta bereziki, kolore neutroetakoak izango dira.

16. Debekatuta dago itxituretan, eguzkitakoetan, mahaietan, aulkietan edo instalazioa osatzen duten gainerako elementuetan publizitaterik edo iragarkirik jartzea, ostalaritzako establezimenduaren beraren publizitatea izan ezik. Hau da, establezimenduaren izena edo logotipoa terraza osatzen duten altzarietan inprimatuta jarri ahal izango da. Publizitateak, gehienez ere, ondoren zehaztuko diren azalerak hartuko ditu:

— Estalki finko edo mugikorretan: Okupazioa, gehienez ere 60 x 20 zentimetrokoa izango da, estalkiaren albo banatan.

— Eguzkitakoen hegaletan, aulkietan, mahaietan eta itxituretan: Okupazioa, gehienez ere, 20 x 20 zentimetrokoa izango da.

17. Eskaera berrietan, nahiz baimena berritzeko eskaeretan, jarriko diren altzarien ezaugarriak zehaztu beharko dira. Altzariek Udalaren zerbitzu teknikoen oniritzia izan beharko dute, eta horretarako, erabili nahi diren aulkiak, mahaiak eguzkitakoak eta gainontzeko elementuak nolakoak diren erakusten duten argazkiak aurkeztu beharko dira. Mahaien eta aulkien egitura inola ere ezin izango da plastikozkoa izan. Mahaien gehienezko neurria 60-70-80 zentimetrokoa izango da, oinezkoentzako pasabideentzat 2 metrotik gorako zabalerako lortzeko beharrezkoak diren irisgarritasun irizpideak betetzen dituzten heinean. Neurri hori artikulu honen 6. atalean ezartzen den gutxieneko neurria da.

18. Ezingo zaie udalarenak diren ondasunei, obrei edo zerbitzuei kalterik eragin. Behin terraza kenduta, instalazioaren ondorioz zoruari kalteren bat egin bazaio, hilabeteko epea izango da zorua leheneratzeko. Hori egin ezean, Udalak lana subsidiarioki egingo du, interesatuaren kontura. Hala, interesatuak, zorua konpontzeko obrak egin diren bitartean, Udalean tramitatu diren ondare-erantzukizuneko erreklamazio guztien gaineko ardura izango du, baldin eta erreklamazioa ustezko kalteen ondorioz egin bada.

19. Terrazarekin okupatutako bide publikoak eta espaloiak uneoro garbi izan beharko dira. Hortaz, baimenaren titularraren zeregina izango da terrazarentzat hartutako azalera garbitzea. Instalazioan jarritako elementuak mantentzen ez badira, edo elementuen apaintasuna eta garbitasuna gordetzen ez badira, baimena kendu egingo da, eta ondorioz, instalazioa ere bai. Arestiko baldintzak mantentzeko betebeharrak terrazako elementu guztiei eragiten die. Elementu horiek, behar bezain txukun eta garbi egon beharko dute.

En todo caso y de no producirse dicho acuerdo, el Ayuntamiento tendrá la facultad de decidir las condiciones técnicas y estéticas más apropiadas para el citado mobiliario urbano.

12. Los límites de las zonas destinadas a la colocación de mesas, sillas, sombrillas etc., serán delimitados por el Ayuntamiento mediante marcas en el suelo encuadrando la superficie completa de la terraza una vez se haya obtenido la correspondiente licencia municipal.

13. En ningún caso podrá ocuparse la vía pública con pilas de sillas, mesas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza, salvo imposibilidad manifiesta y razonadamente justificada en la solicitud de licencia para la instalación de terraza.

14. Se prohíbe expresamente el cierre completo de la instalación en cualquiera de los laterales de la misma. Las protecciones laterales se realizarán conforme a lo dispuesto en la presente ordenanza.

15. Tanto el vuelo como el pie de apoyo de las posibles cubriciones utilizadas quedarán dentro de la superficie que ocupe la terraza y serán preferentemente de colores neutros.

16. Queda prohibida la impresión o utilización de muestras, publicidad o anuncios en mamparas, sombrillas, mesas, sillas o cualquier otro elemento que forme parte de la instalación. Excepto la publicidad del propio local de hostelería, es decir, su nombre o su logo, que podrá figurar impresa en el diferente mobiliario de que se componga la terraza, con las superficies máximas de ocupación que a continuación se indican:

— En cubiertas fijas o móviles, una ocupación máxima de 60 cm x 20 cm en cada una de las faldas de sus caras.

— En las faldas de sombrillas, en las sillas, mesas y mamparas, una ocupación máxima de 20 x 20 cm.

17. Tanto en las nuevas solicitudes como en las peticiones de renovación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, el cual deberá recibir el visto bueno de los servicios técnicos municipales, adjuntando fotografía del tipo de silla, mesa y sombrilla que pretenda utilizarse, así como de cuantos otros elementos auxiliares se quiera hacer uso. En ningún caso la estructura de mesas y sillas podrá ser de plástico. La dimensión máxima de las mesas, será de 60-70-80 cm, circular o cuadrada, a medida que garantice la aplicación de los criterios de accesibilidad tendentes a lograr anchuras superiores de los itinerarios peatonales a los 2 m establecidos como mínimo en el apartado 6 del presente artículo.

18. No podrán afectarse bienes, obras o servicios municipales. Una vez retirada la terraza, si hubiese resultado afectado el pavimento por la instalación, deberá reponerse en un plazo máximo de un mes, realizándolo en caso contrario subsidiariamente el Ayuntamiento a cuenta del interesado, respondiendo éste durante el tiempo que se procede a la ejecución de las obras de reparación, de cualquier reclamación patrimonial tramitada ante el Ayuntamiento, y que haya sido generada por los supuestos desperfectos

19. La vía pública y aceras ocupadas por la terraza deberán mantenerse en permanente estado de limpieza correspondiendo al titular de la autorización la limpieza de la superficie ocupada. La falta de mantenimiento de los elementos de la instalación o el deterioro en las condiciones de ornato y limpieza implicará la retirada de la autorización y, en consecuencia, de la instalación. El mantenimiento de las condiciones citadas alcanza a todos sus elementos que deberán presentar en todo momento un adecuado estado de conservación y limpieza.

20. Inola ere ez da terrazak instalatzeko baimenik emango, baldin eta dagokion araudi sektorialak horrelakorik debekatzen badu. Emanda egon daitezkeen baimenak baliogabeak izango dira eskubide osoz.

21. Debekatuta dago Udal honekiko zorrak, hau da, betearazteko edo premiazko prozeduraren bidez eska daitezkeen zorrak dituzten establezimenduekin zerikusia duten terrazak instalatzea. Hortaz, dagoeneko emanda dauden baimenak eraginik gabekoak bihurtuko dira.

22. Saltokien atari edo sarrera guztietatik aldez aurretik eginda dauden oinezkoentzako bigarren mailako bideetara iristeko aukera bermatu beharko da. Horiek horrela, oinezkoak ez dira hasierako ibilbideetatik 10 metro baino gehiago desbideratu beharko. Bestela, konponbide gisa, terrazen artean metro bateko tartea jarriko da.

23. Terrazetan, gutxienez, laurogei zentimetroko tartea utzi beharko da, terrazatik arkupedun fatxaden kanpoko mugaraino.

23. Terrazen diseinua egiteko, batez ere, 60 zentimetroko mahaiak jarriko dira, eta aulkien gutxieneko fondoa 70 zentimetrokoa izango da. Arestian aipatutako parametroen arabera, metro koadro eta pertsona bakoitzeko gutxieneko okupazio dentsitatea 0,60-0,87 metro koadrokoa izango da pertsona bakoitzeko, mahai bakoitzean bi, hiru edo lau lagun baldin badaude, eta ordenantza honetan jasotako banaketei eta atzeratzeei dagozkien azalerak (bideenak, terrazen artekoak, e.a.) kontuan izan gabe.

*6. artikuluak. Egitura finkoen edo mugikorren bidezko estalkiak.*

1. Estalki finko bat jartzea aurreikusten baldin bada, egiturazko osagaiak eta zoruari zuzenean lotzen zaizkion oinen ainguraketak erraz desmuntatzeko modukoak izan beharko dira, eta gainera, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Estalkiaren instalaziotik irteten diren elementu guztiek berrehun eta hogeita bi (220) zentimetroko garaiera gainditu beharko dute.

b) Alboetako babesak instalatzeko, Ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoa izango da kontuan.

2. Estalkiek, gainera, diseinu berezi irekia izan beharko dute, eta bertan lehentasuna izango du bisten iragazkortasunak. Hori dela eta, ez da hurbil dagoen hiri-inguruaren pertzepzioari eragozpenik jarriko, eta estalki horiek ez dira edukiontzi trinkoen tankerakoak izango. Egituraren osagaiak, batik bat, altzairuzkoak (altzairu herdoilgaitza, fundiziokoak) izango dira, eta osagai horiei pinturazko akabera ematen bazaie, oxidón motako pintura erabiliko da, edo herriko gainerako hiri-altzarietan erabiltzen dena. Horrela bada, osagai horiek, osaerari eta akaberari dagokionean, bat egingo dute inguruko hiri-bilbearen ingurumen balioarekin. Hori dela-eta, eskabideari instalazioaren proiektua eta eragina ebaluatzeko beharrezkoak diren infografiak erantsi beharko zaizkio.

3. Estalki finkoak ainguraketarik gabe instalatu ahal izango dira, baldin eta estalkien sendotasuna, finkotasuna eta mugiezintasuna modu egokian bermatzen badute.

4. Udal Agintaritza eskudunak, ondorengo kasu guztietan, ezezkoa eman ahal izango die estalkiak jartzeko eskabideei.

a) Bide segurtasunarentzat nola edo hala kaltegarriak badira (ikuspena murriztea edo gidariei arreta galaraztea, e.a.), edo oinezkoen joan-etorria nabarmenki oztopatzen badu.

20. En ningún caso se autorizará la instalación de terrazas cuando la normativa sectorial correspondiente lo impida. Las autorizaciones que pudieran haberse otorgado serán nulas de pleno de derecho.

21. Queda prohibida la instalación de terrazas, y devienen ineficaces las autorizaciones en su caso otorgadas, vinculadas a los establecimientos de hostelería que mantengan deudas con este ayuntamiento que resulten exigibles por el procedimiento ejecutivo o de apremio.

22. Desde cualquier portal o acceso a comercio, etc. deberá garantizarse la accesibilidad a los itinerarios peatonales secundarios ya preexistentes, sin tener que desplazarse respecto a los recorridos de acceso iniciales más de 10m y/o resolviéndose mediante los pasillos de separación y/o de servicio entre terrazas de un 1 metro de anchura.

23. Las terrazas mantendrán una distancia mínima de (80) ochenta centímetros desde el limite exterior de las fachadas porticadas.

24. Preferentemente el diseño de las terrazas se realizará con mesas de 60 cm y ocupación de un fondo mínimo de las sillas de 70 cm. La densidad de ocupación mínima $m^2$/persona en función de los referidos parámetros, será de 0,60-0,87 y 1,00 $m^2$/persona para ocupaciones de dos, tres o cuatro personas/mesa respectivamente, sin incluir las superficies correspondientes a las separaciones y retiros especificados en la presente ordenanza (con viales y entre terrazas etc.)

*Artículo 6. Cubriciones mediante estructuras estables fijas o móviles.*

1. En caso de preverse una cubierta fija, sus elementos estructurales y los anclajes de los pies derechos al suelo serán fácilmente desmontables y debiendo además reunir las siguientes condiciones:

a) Cualquier elemento saliente en la instalación de la cubrición, deberá superar la altura de doscientos veinte (220) centímetros y

b) las protecciones laterales de la instalación atenderán a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente Ordenanza.

2. Las cubriciones presentarán además un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción del entorno próximo urbano, ni operen a modo de contenedor compacto. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición), y en el supuesto de acabado en pintura éste será del tipo oxidón o del asignado para el resto del mobiliario urbano de la ciudad, de manera que por su composición y acabados se integren en el valor ambiental de la trama urbana que les rodea. Para ello la solicitud deberá incluir el correspondiente proyecto de instalación y las infografías necesarias para evaluar el impacto.

3. Las cubiertas estables podrán ser instaladas sin anclajes cuando se garantice de forma adecuada su solidez, estabilidad e inmovilidad.

4. La Autoridad Municipal competente podrá denegar la solicitud de instalación de cubiertas en cualquiera de los supuestos siguientes:

a) Cuando supongan algún perjuicio para la seguridad viaria (disminución de la visibilidad, o distracción para los conductores etc.) o dificulte sensiblemente el transito de peatones;

b) Inguruko eraikinen eta lokalen segurtasunerako kaltegarria bada (hustuketak, e.a.). Horiek horrela, inguruko eraikinaren lehenengo solairuan edo pareko altueran dauden leiho-zuloetatik, balkoien barandetatik gertuen dauden egitura-osagaiak, eskalatzeko modukoak badira, gutxienez bi metroko distantziara jarriko dira.

c) Egituraren forma desegokia baldin bada, inguruarekin bat ez baldin badator edo hiriko paisaiaz era egokian jabetzea eragozten baldin badu.

5. Hala eta guztiz ere, guztiontzako eman diren ezaugarriak jarraitzen ez dituzten beste aukera batzuk ere aurkeztu ahal izango dira. Udal Agintaritzak aukera horiek aztertuko ditu.

6. Oro har, ostalaritza establezimenduaren luzera berbera duten estalki-proiektuak besterik ez dira baimenduko, 7. artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Proiektatutako estalkiek duten oinaren gutxieneko azalera 14 metro koadrokoa izango da, baldin eta arrazoi teknikoak direla medio, edo egitura egonkorren modulazioaren ondorioz, gehienez, ere fatxadaren luzera baino metro bat gehiago okupatu behar bada. Horretarako, bestalde, okupazio horren ondorioz eragninda gelditzen diren oinezkoentzako ibilbideen oinarrizko ezaugarriak mantendu beharko dira.

7. Estalki horiek ezin izango dira, ostalaritza jarduera handitzeko, fatxadari atxikita instalatu. Hala ere, metro bateko zabalera duten zuzeneko loturak jarri ahal izango dira, baldin eta jarduera baimena eta lokala irekitzeko baimena aldatzen ez badira, edota estalkiak baimenek diotenarekin bateragarriak badira. Horretaz gain, aurreko 4.b atalean ezarritako baldintza bete beharko da, edota lehenengo solairuan dauden eragindako etxebizitzek edo lokalek berariazko baimena eman beharko dute.

8. Ez da jabetza pribatuko eta erabilera publikoko guneetan terrazak instalatzeko baimenik emango, baldin eta plazatxoaren iragazgaiztasunari eragin diezaioketen ainguraketak jarri behar badira.

*7. artikulua. Luzera.*

1. Terrazaren gehienezko luzerak, alboetako babesak, eta hala badagokio, jardinerak ere sartuta, ez du gaindituko jarduera nagusia kokatuta dagoeneko establezimenduaren fatxadaren aurrealdea, establezimendu horren inguruan dauden gainerako establezimenduek idatziz horretarako baimena ematen duten kasuetan izan ezik. Uneren batean, ingurukoren baten eskaera arrazoitua kontuan izanda, terrazaren luzera murriztu behar baldin bada, eta horren ondorioz sobera dauden altzariak kendu behar badira, ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

2. Kendu egin da.

3. Terrazaren luzera ezin izango da, inola ere, hamar metrotik (10 m) gorakoa izan. Ibilgailuen joan-etorria duten kaleetako espaloietan (10.1. artikulua), oinezkoentzako kaleetan (10.2 artikulua), plazetan eta gune libreetan (10.3. artikulua), gune libre berezietan (10.4. artikulua) edo ataripeetan (10.5. artikulua) terrazak jartzeko aurreikusi diren kasuak berariazko arauen bitartez arautuko dira.

4. Terrazak luzetara dituen 10 metro bakoitzeko, zerbitzua eskaintzeko zeharkako korridore bat utzi beharko da, gutxienez, metro bateko zabalera izango duena.

5. Terrazak fatxadara atxikita jartzen badira, gutxienez, 50 zentimetroko tartea utzi beharko da inguruko lokalen mehelinak dauden lekuraino, baldin eta lokalen sarrerei edo merkataritzako erakusleihoei eragiten bazaie.

b) Cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales próximos, (evacuación, etc.); En dicho sentido, los citados elementos estructurales y resistentes a la escala, deberán separarse desde su parte más próxima a los huecos de ventanas, barandillas de balcones, etc. situados en planta primera o equivalente del edificio próximo, a una distancia mínima de 2 metros.

c) Cuando resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

5. No obstante, cabrá la posibilidad de presentación de otras alternativas con diferentes características a las indicadas con carácter general y que serán estudiadas por la Autoridad Municipal.

6. El proyecto de cubrición estable sólo se autorizará, como norma general, por idéntica longitud a la fachada del establecimiento de hostelería al que da servicio, conforme a las determinaciones del artículo 7, y deberán proyectarse con una superficie mínima de 14 $m^2$ de planta salvo que por razones de carácter técnico y/o de modulación de las estructuras estables, se precisara una ocupación superior que rebasará dicha longitud de fachada con un máximo de 1 m, y ello a medida que sigan manteniéndose las características básicas de los itinerarios peatonales que pudieran ser afectados por dicha ocupación.

7. Dichas cubriciones no podrán instalarse adosadas a las fachadas de las actividades hosteleras a modo de ampliación, aunque sí podrán disponer de una conexión directa de 1m de ancho a medida que no se modifiquen y/o sea compatible con las condiciones de las licencias de actividad y apertura del local, y además se cumpla la condición establecida en el anterior apartado 4.b, y/o se disponga la autorización expresa de las viviendas o locales de la primera planta afectados.

8. No se concederán autorizaciones para la instalación de terrazas con cubierta estable en espacios de propiedad privada y uso público siempre que sus anclajes puedan afectar a la impermeabilización de la plazoleta

*Artículo 7. Desarrollo longitudinal.*

1. El desarrollo longitudinal máximo de la terraza, incluidas protecciones laterales y, en su caso, jardineras, no rebasará la longitud del frente de una fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo que se incluya la autorización por escrito de los establecimientos colindantes de la misma. Si en un momento dado, a petición fundamentada del colindante hubiera que reducir la longitud de la terraza, la retirada del mobiliario sobrante no generará ningún derecho a indemnización.

2. Se quita.

3. En ningún caso el desarrollo longitudinal de la terraza podrá rebasar los diez metros (10 m). Los supuestos contemplados para instalaciones de terrazas en aceras de calles con circulación rodada (articulo 10.1), en calles peatonales (articulo 10.2), en plazas y espacios libres (articulo 10.3), en espacios libres singulares (articulo 10.4) o en soportales (articulo 10.5) se regirán por sus normas específicas.

4. Cada 10 m de desarrollo longitudinal de terraza, deberá dejarse un pasillo transversal de servicio de una anchura mínima de 1 metro.

5. Las terrazas cuando se adosen a fachada, deberán separarse mínimamente 50 cm de las medianeras de los locales colindantes, y ello a medida que puedan afectar a sus accesos y/o escaparates comerciales.

*8. artikulua. Mugatzea.*

1. Argi eta garbi mugatu beharko da instalazioak hartzen duen azalera. Mugatze-lan hau hainbat eratan egin ahal izango da: Pintura markak, alboetako babesak, e.a. Horretarako, inguruaren ezaugarriak kontuan izan beharko dira, eta betiere, instalazioen oinarria behar bezain egonkorra izango da.

Osagai zeharrargiekin egindako itxituretan elementuren bat jarri beharko da itxitura hor dagoela ikusi ahal izateko.

2. Alboetako babesek ezin izango dute gainditu dagokion instalazioarentzat baimendu den zabalera, eta altuera ez da zero koma laurogei zentimetrotik (0,80) beherakoa izango, ezta metro bat eta hirurogeita hamar zentimetrotik (1,70) gorakoa ere. Horretaz gain ostalaritza jarduera kokatuta dagoen lokaletik, gertuen dagoen aurrealdeko fatxadara, gutxienez, bi metroko (2) pasabidea utzi beharko da, zerbitzua emateko.

3. Alboetako babesak lorategien, plazatxoen eta begiratokien perimetrotik 0,80 metrora jarriko dira, interes gutxiko kokapenetan izan ezik. Horretarako, udal teknikariaren txosten arrazoitua beharko da.

*9. artikulua. Herri interesagatiko edota bide-segurtasunagatiko debekuak.*

1. Udal Agintaritza eskudunak, era berean, terrazak eta elementu lagungarriak jartzea debekatu ahal izango du, baldin eta trazatuaren, egoeraren, bide segurtasunaren, obra publiko edo pribatuen, oinezkoen pilaketen, ikuspenaren, irisgarritasunaren edo antzeko beste arrazoi batzuen ondorioz, herri interesak horrela jardutera behartzen badu.

*10. Artikulua. Terrazen okupazioari buruzko berariazko arauak.*

Arestiko artikuluetan jasotako muga orokorrez gain, terrazek ondorengo okupazio baldintzak bete beharko dituzte, terrazaren jabe den lokalak duen kokapenaren arabera:

10.1. Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietako terrazak.

1. Bi metro eta laurogeita hamar zentimetrotik (2,90 m) beherako zabalera duten espaloietan ezingo da terrazarik jarri, ezta galtzada babesik ez duten zirkulazio azkarreko bideen ondoan ere.

Hala eta guztiz ere, aparteko kasuetan, Udalak banaka aztertuko ditu eskaeran aipatzen eta argudiatzen diren inguruabarrak. Horiek horrela, behar bezala arrazoitu ostean, ezohiko baimena eman ahal izango du.

2. Nolanahi ere, fatxadatik instalaziora gutxienez bi metro (2,00) zabal izango den ibilbidea utzi beharko da oinezkoentzat, inolako oztoporik gabe. Gutxieneko ibilbide hori modulatzeko aukera izango da, ondoko espaloi-zabaleren arabera:

— 2,90 metrotik 4 metrora: Oinezkoentzat 2 metroko ibilbidea utzi beharko da libre, eta terrazaren zabalera 60 zentimetrotik 170 zentimetrora artekoa izango da.

— 4,01 metrotik 5 metrora: Oinezkoentzat 2,50 metroko ibilbidea utzi beharko da libre, eta terrazaren zabalera 120 zentimetrotik 220 zentimetrora artekoa izango da.

— 5,01 metrotik 6,30 metrora: Oinezkoentzat 3,00 metroko ibilbidea utzi beharko da libre, eta terrazaren zabalera 170 zentimetrotik 300 zentimetrora artekoa izango da.

— 6,30 metrotik gora: Oinezkoentzat 3,50 metroko ibilbidea utzi beharko da libre, eta terrazaren zabalera 250 zentimetrotik gorakoa izango da, eta gehienez ere, 4 metrokoa.

*Artículo 8. Delimitación.*

1. El área ocupada por la instalación deberá quedar delimitada claramente. Esta delimitación se podrá hacer de diferente manera: Marcas de pintura, protecciones laterales, etc.; teniendo en cuenta las condiciones del entorno y, en cualquier caso, con una base lo suficientemente estable.

Las mamparas construidas a base de elementos traslúcidos deberán disponer de elementos que identifiquen visualmente la existencia de la misma.

2. Las protecciones laterales no podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente, y su altura no será inferior a cero con ochenta (0,80) metros ni superior a uno con setenta (1,70) metros, debiendo dejar en su fachada frontal más próxima al local que albergue la actividad hostelera, (2) dos metros de paso mínimo de servicio.

3. Las protecciones laterales se separaran 0,80 m del perímetro de jardines, plazoletas y miradores; salvo situaciones de escaso interés mediante informe razonado del técnico municipal.

*Artículo 9. Prohibición por razones de interés público y/o Seguridad Vial.*

1. La Autoridad Municipal competente podrá así mismo prohibir la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares, en aquellos casos en que así lo exija el interés público, por razón de trazado, situación, seguridad vial, obras públicas o privadas, afluencia masiva de peatones, visibilidad o accesibilidad o cualesquiera otras circunstancias similares, debiendo fundamentarse debidamente dicha prohibición.

*Artículo 10. Normas específicas de ocupación de terrazas.*

Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en los artículos anteriores, las terrazas se sujetarán a las siguientes condiciones de ocupación en función de la situación del local al que pertenezcan:

10.1. Terrazas en aceras de calles con circulación rodada.

1. No podrán colocarse terrazas en aceras que tengan una anchura inferior a dos coma noventa metros (2,90 m), ni junto a vías de circulación rápida sin protección de calzada.

No obstante, en casos excepcionales, el Ayuntamiento estudiará de forma individual las circunstancias que concurren y se argumenten en la solicitud, pudiendo de forma extraordinaria y motivada conceder la oportuna licencia.

2. La instalación deberá garantizar, en todo caso, un itinerario peatonal permanente de dos (2,00) metros mínimos de anchura respecto de la fachada, libre de obstáculos, itinerario mínimo que se modulará según los siguientes anchos de acera:

— De 2,90 m a 4 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 2 m. La anchura de terraza será desde 60cm a 170 cm.

— De 4,01 m a 5 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 2,50 m. La anchura de terraza será desde 120 cm a 220 cm.

— De 5,01 m a 6,30 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 3,00 m. La anchura de terraza será desde 170 cm a 300 cm.

— Más de 6,30 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 3,50 m. La anchura de terraza será a partir de 250 cm y no más de 4 m.

3. Espaloiaren ertzean, luzetara, segurtasun tarte bat utzi beharko da, gutxienez, hogeita hamar zentimetrokoa (30); babes-hesia dagoen kasuetan izan ezik. Ibilgailuentzako aparkalekua dagoen tokietan, gutxienez, laurogei zentimetroko (80) tartea utzi beharko da terrazaren eta espaloiaren ertzaren artean, aparkalekura sartzen diren eta bertatik irteten diren ibilgailuetako erabiltzaileen segurtasuna eta joan-etorria bideratu eta bermatu ahal izateko, galtzada erabiltzeko beharrik izan ez dezaten.

4. Ezin izango da instalaziorik jarri oinezkoentzako pasabideen, ibilgailuentzako pasabideen, jendearentzako lokaletako larrialdi irteeren aurrean, ezta garraio publikoen geltokien aurrean ere, oinezkoentzako ibilbide irisgarriak bermatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak emandako 68/2000 Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

Era berean, arreta berezia jarriko zaie oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udalak egin duen jarduera planean jasota dauden ibilbide irisgarriei, baita plana egin ondoren ibilbide irisgarritzat jotzen direnei ere.

5. Udal teknikariaren iritzi arrazoitua kontuan izanik, oinezkoentzako pasabidea zabaltzeko aukera izango da, baldin eta oinezkoen joan-etorriaren ondorioz hori egitea beharrezkoa bada.

6. Terrazaren aldameneko saltokiek, euren aurrealdeak erabiltzeko lagapena sinatu badute ere, lagapen horiek berreskuratu nahi baldin badituzte, Udalari eman beharko diote horren berri, arrazoitutako justifikazio baten bidez; Udalak terrazaren baimena berritzerako orduan kontuan eduki dezan.

7. Instalazioa aldamenekoen fatxadaren baten aurrean badago, terraza jartzeko eskabide bakoitzarekin batera jarduera nagusiaren aldamenekoek urtero sinatutako baimena aurkeztu beharko da; 7.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimena eskatzea beharrezkoa ez den kasuetan izan ezik.

10.2. Oinezkoentzako kaleak instalazioekin okupatzea.

1. Ordenantzan ezarritakoa betetzeko, ondorengoak hartuko dira oinezkoentzako kaletzat: Guztiz edo zatika, orduren edo uneren batean, ibilgailuen zirkulaziorako itxita daudenak, eta halaxe seinaleztatuta daudenak, kalearen eite fisikoa kontuan izan gabe.

